

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abenduak 3 / III. urtea / 104. zenbakia

Metropoli Forala

Patziku: klarki eta gordinki

Asteburu honetan egingo den Durangoko Azokan aurkeztuko du Patziku Perurenak bere azken liburua, 'Marasmus Femeninus' izenekoa. 'Apo ttipiaren...' liburuan biltzen zen filosofia emakume baten hitzetan jarri du orain goizuetarrak, eta feminismoa —emakoikeria, protagonistaren hizkera bizian— eta emakumeen papera gaur egungo gizartean etengabeko erreferentziak dira.

Duela lau bat urte idatzitako liburu honek gogor astinduko du hainbat gogo eta uste, usteak ustel baitira bertan, eta topikoak, horixe, topiko. Nafarroako herrixka batean bizi den Joaquinak Madrilen dagoen bere lagun minari idazten dizkion gutunak azaltzen dira liburuan, eta gaurko gizarteak dituen aurritziak zirti-zarta urratzen ditu, arraso. Hemeretzi gutunetan, sexua, gezurra, amodioa, politika, literatura, kultura, zezenak, Atxaga idazlea, lana edo familia, beste gai zenbaiten artean, jorratzen ditu, eta Patzikuren beraren mundu ikuspegia azaltzen zaigu, klarki eta gordinki. Horrelakoa baita bera.



FELIPE RIUS

Negu Gorriak taldeak saioen bat egin badu ere, elektrifikazioa ez da oraindik bertsolaritzaren mundura iritsi eta tradizioen zaindaria lasai daude beren eserlekuetan, bertsolariak egunen batean kitarra, baxua eta bateriarekin batera taularatuko direla susmatu gabe. Estudioko musikariak arituko dira txapelketetan eta bestelako saioetan bertsolari bakoitzak bere taldea eraman ahal izanen du —hau irakurtzen ari diren bitartean 'herejia' oihukatzen hasi dira batzuk eta eskua gerrira eraman dute, baina pistolak egon beharko lukeen tokian telebistaren kanalak aldatzeko baino balio ez duen aparailu txikia besterik ez dute aurkitu, eta pantailan 'grunge' estetika jantzirik bertsolari ileluze batek poto egin du kitarjolearen 'riff-ak' despistatu duelako—.

Badakit ez direla kitarra elektrikoen alde mintzatzeko garai onenak; azken bolada honetan ospe handiko rockero askok alde batera utzi dituzte kableak eta kitarra akustikoa hartuta hamaika 'unplegged' grabatu dituzte. Agian lehenbiziko pausoa hori litzateke, bertsolariak garai bateko kantautoreak bailiran —eta ez dut ezer asmatzen, Xabier Lere eta Antton Valverdek horrelako zerbait egin bait zuten—, akorde batzuk jartzeara. Jakina, bertsoak osatzea eta aldi berean kitarra jotzea ez litzateke batere erraza izanen bertsolari gehienentzat; ikastaroren bat egin beharko lukete aurretik Jimmy Hendrixen abileziak ikasteko.

Guzti honetan pentsatu nuen lehengoan Johnny Clegg hegofrikarraren kontzertuan. Napartheidekoek diotenez, badira Hegoafrika eta Euskal Herriaren artean zenbait parekotasun, eta haiek beren ohiturak rock and rollaren formetara egokitu badituzte, ez dakit zergatik ezin dugun berdin egin. Azken finean euskal kultura zabaltzeko aukera gehiago izanen genuen Lopategi, Sarasua, Arozena eta beste batzuk MTVeko bi-deoklipetan agertuz gero. Diskografikoak konturatzen badira honek eskaintzen dituen posibilitatez, bertso-noise, heavy-bertso, zortziko-txiki-grungea eta bertso-laritza Seattleko estiloan izanen ditugu hemendik gutxira. Gora elektrifikazioa!

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



'Lurra zaindu dezagun' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñeko Gotorlekuan, bertako udalak, Ansak eta 'la Caixa' fundazioak antolatutako. Ohizko ordutegia izanen du, lanegunetan arratsaldean eta jaiegunetan goizez.

Pedro Osés pintorearen erakusketa ikusgai dago Lizarrako Banco Atlanticoren aretoan. Erakusketak abenduaren 15a arte iraunen du eta bertan, komiki eta irudi bereziak ikus daitezke. Ikusteko, lanegunetan arratsaldean eta jaiegunetan goizean izango da zabalik.

ANTZERKIA



'La desfachatez de la cabra cabres' izeneko antzezlan plaza-ratuko du Retablo de Figurillas taldeak Berbintzana herrian. Antzerki emanaldia gaur arratsaldeko 17.00etan hasiko da, San Isidro elkartearen.

'Txap, niri bost' antzezlan taularatuko du Shambu Teatro taldeak bihar arratsaldean Garrantzan. Emanaldia 18.00etan hasiko da, herriko pista estalian.

'El dia no restituído' izango da Gus Marionetas taldeak heldu den asteazkenean, abenduak 8, plazaratuko duen lana. Emanaldia Aratzuri herrian izango da, arratsaldeko 19.00etan hasita, bertako Kultur aretoan.

'La flor del lobo' izeneko antzezlan taularatuko du asteburu honetan TEN Pinpilaupaua taldeak Iruñean. Emanaldia igande eta astelehenean izango da, Nafarroako Antzerki Eskolan, San Agustín kalean. Arratsaldeko 20.00etan hasita, sarrerak seirehun pezetatan salduko dituzte, eta gazte txartela edukiz gero, hirurehun pezetatan.

ZINEMA



'Esencia de mujer' izeneko pelikula botako dute heldu ostegunean, abenduak 9, Tafallako Español zinemaren. Bertako Kultur Patronatoak antolatutako, bi saio izanen ditu, bata arratsaldeko 20.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarrerak 200 pezetatan salduko dituzte.

MUSIKA




Izugarri folk musika taldeak kontzertu bat eskainiko du gaur, abenduak 3, Iturengo herriko plazan. Musika saioa gaueko 21.30etan hasiko da. Sarrera dohainik.

Zunbeltz-Urederra

Pirinioak asteburu luze honetan utzi eta etxe inguruko parajeak bisitatzeko aukera ematen digu Nafarroako Mendizale Federakundeak, Urbasa aldera antolatu duen ibilbidearekin. Jendek montioa ibiliko dira mendiak eta bazter guztiak, hain segur, egun guzti hauek horretarako parada ematen baitute, eta Urbasa ez da norma horretatik kanpoan geldituko. Hala ere, muzin egin diezaiozun behingoz jendeari eta dasta dezagun mendiaren konpainia, ez baita gutxi.

Ibilbideak Urbasa zeharkatzen duten bi errepideak lotuko ditu, Zunbeltzko Bentatik atera eta Zudairira daraman bidera helduz. Bertan ikusi ahal izango dugu Ameskoara ematen duen alde guzti hori, Pilatosen miradore izugarria barne. Autobusa, beti bezala, goizeko zortietan aterako da Iruñeko Autobus geltokitik. Ibilbide guztia nahiko laua da, eta igo beharreko malda bakarra Dulantz menditorturarena da. Hala ere, Zunbeltzek 900 metro inguru dauzka, eta Dulantzek, 1.239. Ez da, beraz, inor beldurtzekoa.

Eguraldi ona izanez gero ikusmira ederra izango dugu ibilbidean zehar. Aurre-aur



rean, San Donato mendia, Andamenditik sortuta, eta Urbasa osoa. Haruntzago, Nafarroako erdialdea eta Pirinioak ere. Nafarroaz gain, Gipuzkoa eta Bizkaia ere ikus daitezke: Aizkorri, Gorbeia eta Anboto, hain zuzen ere.

Zunbeltzetik ordubetera helduko gara Dulantzera, eta hor egingo dugu hamaiketako. Hortik behera Urederra ibaia-aren sorburua ikusteko aukera izango dugu, ederki ezaguna

inguru osoan. Aspaldi honetan raftingzaleek eta mendizale berri askok hartu dute ingurua, ibaia zeharkatuz Bakedanoraino jeisteko, eta esperientzia izugarria da, zeharo berria. Pilatosen miradoretik ikusten den ikusmirak, bestalde, paseo oso bat merezi du ezagutzen ez dutenendako, benetan bitxia eta zoragarria baita. Hptik helduko gara Zudairi eta Olaztiren arteko errepidera eta ibilbidearen amaierara.

ASTEKO PERTSONAIK



Carlos Artundo
Osasun sailburu ohia



Fernando Biurrun
HBko zinegotzia



Carmen Salanueva
BOEko zuzendari ohia

Izendatu zutenetik hilabete t'erdia pasa eta gero, Jesus Gutierrez HIESaren Egitasmo Nazionaleko presidentek bota egin du Carlos Artundo nafarra egitasmo honen idazkari nagusiko kargutik. Nafarroako Gobernuak Osasun sailburua izan zen Artundo sozialistekin, eta orain dela gutxi, askoren harridurarako, Hiesaren Egitasmo Nazionaleko idazkari nagusia izendatu zuten. Baina bide benetan laburra bete du Carlos Artundo nafarrak Madrilen, HIESaren kontrako Nazioarteko Eguna zela eta, Carlos Artundok programa kultural berezi bat laguntzeagatik bota baitute. Programa hau publikoa ez den erakunde batek antolatu zuen, Madrileko Ministerioarekin zerikusirik ez zuela.

San Saturnino Eguna zela eta, Iruñeko udalak urtean zehar antolatzen dituen sari banaketa izan zen astelehenean hiriko etxe nagusian. Aldez aurretik lasai zirudien goiza istilutsu bihurtu zen. Jaime alkateak, ekitaldi instituzionalean parte ez hartzeagatik, HBko zinegotziari sariak ematea debekatu zien. Hauek, orduan, sari alternatibo bat ematea erabaki zuten, eta han bertan, sari ofizialak ematen ziren bitartean, HBko zinegotziek beren oparixoa eman zuten: orriak bereizteko erabiltzen den kartoia (alkatearen irudi barregarri batekin, tximuaren aurpegiarekin) eta Iruñeko insignia. Alkatea eta beste zinegotziek sari alternatiboa ikusi zutenean bapatean aurpegia aldatu zuten.

Madrilgo 16. epaitegiko buruaren aurrean deklaratu ondoren, epaileak aske utzi zuen Carmen Salanueva Buletin Ofizialeko zuzendari ohia, hori bai, hamabost milioi pezetako fidantza ordaindu eta gero. Joan den astelehenean atxilotu zuten Salanueva Madrilen, ustez mila milioiko iruzurra egiteagatik, eta asteazkenean utzi zuten libre. Salanueva iruindarra 1986tik 1991ra arte izan zen BOEko zuzendaria. Urte horietan, BOEk Toixima, Papelera Udalar eta Papel 6 enpresei erosi zien argitalpenerako paperaren % 92,8, eta orain salatu dutenez, hainbat irregulartasun izan ziren papera erosterakoan. Garai horietan, BOEk 142 pezeta ordaindu zituen batz bestea paper kilo bakoitzeko, merkatuko prezioa 86 pezetakoa zen bitartean.

AHAZTU GABE!

'EUSKARA, iraganaren geroa' euskararen aldeko kanpaina ibiltaria Iruñerri eta inguruko beste herri batzuetan izango da asteburu luze honetan. Joan den larunbatean hasia, heldu den astelehenean, abenduak 6, bukatuko da. Gaur ostirala Antsoainen izanen da egun osoan, Lapurbide parkean. Bihar, berri, Barañaingo Udaletxe plazara eramango dute, bertako haur eta gazteek ikus eta parte har dezaten antolatutako ekitaldietan eta igandean, abenduak 5, goize-tik Garesen izango dira bi unitateak, Mena plazan. Arratsalde partean Agoitzera iritsiko da. Azken egunean, astelehenean, Burlatako Eugenio Torres plazan ariko dira. Euskararen aldeko kanpaina hau Nafarroako Gobernuak eta herri hauetako udalek antolatu dute, eta eskualde mistoko herrietan paratuko da. Horretarako bi unitate ibiltariak prestatu dituzte. Lehendabizikoa, 80 m2ko karpia, bi zatitan dago banatua: batean, erakusketa dago, panelak, bideoak, liburuak eta beste tresnekin, eta bestean, karnetak egingo dituzte, 'Euskararen laguna' esaldia-ekin, argazkia eta guzti. Bigarren unitatea haurrentzako jokuak dira.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneatik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

DURANGOKO Azokaren berri

emanen du Euskalerrria Irratiak heldu den asteartean, 'Zokobetailu' saioan. Bertan, Pamiela argitaletxeko kideek eta bertan izan diren beste batzuek kontatuko dituzte asteburuko gora-beherak. Bada-kizue, goizeko hamarretan hasiko da irrasaioa, eta elkarrizketa honetaz gain, musika, kolaboratzaileen albisteak eta abar izanen dira Iruñerriko euskarazko irratiari.

Rockez betetako kultur astea

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Su Ta Gar musika taldea izango da Lesakan antolatu den Kultur Asteko protagonista, bihar larunbata, hilak 4, frontoian emango duen kontzertuarekin. Eibartarrek disko berria aurkeztuko dute Lesakan, eta beraiekin batera Amets Gaiztoak eta Etsaiak taldeek joko dute, gaueko 10.00etan. Tantirumairu ikastolako ikasle ohiek antolatuta, herriko ostatuek osatu duten egitarauaren barruan dago kontzertu hau, Lesakan aspaldiotan bizi den giro txepela nolabait berpizteko. Kezka sortu zaie ostalariei eta zerbait antolatu beharra nabarmendu dute. «Beste formulak bilatu behar izan ditugu, horregatik da 'kultur aste' hau rockez betea» dio Iñigok, Atxaspi ostatukoak. Hori dela eta, aste honetan ia ostatu guztiek antolatuko dute beren kontzertua, eta denen artean Minxoriak taldea ekarriko dute abenduaren 7an, asteartea. Iparraldeko taldearen azken kontzertua.

Kultur astea atzo hasi zen eta gaur kalejira izango da arratsaldean, Salbador Madariagak zuzendutako akordeoi orkestrarekin. 23.00etan, Arranon, rock kontzertua izango da, eta ordu-bete geroago, gauerdian, 'Vela-



Giroa makaldu egin da anitz Lesakan.

da flamenca' Saski ostatuan. Bi-har larunbata, aipatu Su Ta Gar taldearen kontzertuaz gain, pefietakoak aterako dira arratsaldean, berendua egiteko, eta 20.00etan Arranoren eskutik poteoa izanen da trikitixa eta krikitinekin. 21.30etan, ordu berean, herri afaria izango da bertako bertsolariekin. Igan-

dean, hilak 5, txistulari bandaren kontzertua izango da plazan, 13.30etan, eta 15.30etan, Kristoenean, egundoko futbol partidua, Beti Gazte eta Gure Txokoaren artean. 18.00etan Arranon betso saioa, eta 19.00etan, plazan, herri kirolak. Abenduak 6, pilota partidua izango dira frontoian, 17.00etan,

eta 22.30etan, rock kontzertua Atxaspin. 23.00etan. Koxkillan Blues kontzertua izanen da. Asteartean, Minxoriak-en kontzertua, 21.00etan, eta asteazkenean, dianak eta erraldoiak izanen dira goizean. Aste osoan zehar argazki lehiaketa ikusgai egonen da Arranon eta Saskin, eta komiki erakusketa Zialdon.

Iruñea

'Lurra zain dezagun' erakusketa ikusgai asteazkenetik Gotorlekuan

IRUÑEA

Lurra zain dezagun' izeneko erakusketa zabaldu zen asteazkenean Gotorlekuaren Arma Aretoan, Iruñeko Udalak eta 'la Caixa' Fundazioak antolatuta. Erakusketa 'Ekologiaren Garaia' izeneko ekitaldi ibiltariaren barruan dago, eta ingurugiroarekin lotutako arazo orokorrei buruz jendearen arreta piztea du helburu. Erakusketa abendu osoa izango da irekita, eta bertan ikus-entzutezkoak, eguneroko tresnekin egindako erakustokiak, eta argazki handiak ikus daitezke, eskaini nahi diren ideei eta helburuak jendeak aise beregana ditzan.

Hiru sailetan banatuko da erakusketa: Ingurugiroa eta Bizitza; Energia, Materia eta Hondakinak; eta Lurraren Arazo eta Irtenbideak. Lehendabizikoa, ingurugiroa zer den eta bere garrantzia azaltzen da. Bost ataletan —Eguzkia, Eguraldia, Ura, Lurra eta Biosfera— banatzen



Ingurugiroaren garrantzia azpimarratzen du erakusketak.

da, eta bakoitzan argazki handi bat dago, azalpen ugarirekin batera. Bigarrenean bizitzaren aro guztiak azaltzen dira, eta bakoitzean orduko artearen erakusketa paratu da. Horrela, gizakumeak utzitako aztarnak aurkeztzen dira, eta baita aro bakoitzean gastatu den energiaren kopurua —gutxi

gora-beherekoa, jakina— ere.

Azken atalak, hau da, Lurraren arazo eta konponbideak azaltzen duenak, ingurugiroaren arazoa jorratzen du. Nabarmen gailentzen da erakusketa, eta toki eta informazio handiagoa dauka beste sailekin alderatuz gero. Lau ataletan banatzen da.

Arbizu

'Lasterkan' aldizkaria kalean dagoeneko

IRUÑEA

'Lasterkan' haur aldizkariaren 11. zenbakia kaleratu berri dute Sakanako Mankomunitatearen Euskara eta Kirol Batzordeak. Beti bezala, oraingoan ere aldizkariaren edukina eta banaketan Sakanako ikastetxeen laguntza izan dute arduradunek. Zenbaki honetan aldizkaria eraberritua aurkeztu da. Paper birziklatua erabiltzen hasi dira, zenbait atal berri sartu dute, eta beste aldaketa batzuk dakartza 'Lasterkan' argitalpenak.

Azaroko zenbaki honetan ipuinak, asmakizunak, hitzez hitz, txistek, bertsoak, eskutitzak, liburuak, kirol berriak eta lehiaketatxo bat azaltzen dira, eta aipatu lehiaketan parte hartzen dutenei egutegi bat oparituko zaie. Honez gain ale bakoitzarekin pegatina bat oparitu eta anagrama berria daraman 20 kamisetak ere banatu dira. Aldizkari honen tirada 1.600 alekoa da eta Sakanako ikastetxe guztietan banatzen da.



LIZARRAko feria eguna animazio osoz ospatu zen joan den asteazkenean, lehiaketak, artisauek, eta nola ez, ganaduarekin, besteetan hain urria denarekin. 400 bat abere buru saldu ziren Santiago plazan, beste urteetan baino gutxiago, hala ere. Goizeko zortzietan hasi ziren lehen salmentak, eta ordubi t'erdia aldera amaitu ziren, 400 buru salduta zeudelarik. Salmenta gehienak, beste urteetan bezala, motxalak izan ziren, motxal gazteak, eta gero behorrak, zaldiak, mandoak eta astoak. Giroa alaitzeko herri kirol jaialdia izan zen, Iñaki Perurena, Gabriel Saralegi, Floren Nazabal eta Donato Larrerearekin.

ERROIBARreko udalak ETB ikusi hal izateko neurriak lehenbailehen har ditzan eskatu dio Nafarroako Parlamentuari, eta bere kezka azaldu dio dagoen atzerapena dela eta. Izan ere, udalak bere kabuz paratu zituen bi kateak hartu ahal izateko errepetidoreak, eta «kontuan hartuz gureak diren gai asko bertan jorratzen direla, eta euskal eremuan gaudela». Parlamentuak, baina, ez du ezer egin uztalean sinatu zen hitzarmena betetzeko, hau da, Nafarroa osoan ETBren kaptazioa ziurtatzeko.



TUTERAko magrebiarrekiko arrazakeria aspaldian salatua dago, baina oraindik ez zaio, nonbait, gehiegi ohartarazi jendearek horren arriskuaz. Alemanian, Espainian edo Frantzia arrazakeri kasuak gertatzen direnean eskuak burura eramaten baditugu ere, oraindik ez gara ia ohartu ere egin etxean, Euskal Herrian bertan hasiak direla horrelakorik. Tuteran bizi den Abdelkhalek Benmhamed marokkoarra bizirik atera zen pasa den azaroan ezezagun batzuek egin zioten erasoarengatik, baina beso bat galdu, berna hautsita dauka, eta bizkar hezurra kolpatuta.

ERRIBERRIko udalbatza tentsioz beterik ospatu zen joan den asteartean, bertan ohizkoa den moduan, eta Goikoetxea Ertzaintzaren sarjentuaren hilketa zela eta alkatearen taldeak aurkeztu zuen mozioarengatik. PSOEko taldeak mozio bat aurkeztu zuen horren inguruan baina alkatearen taldeak beste bat onartu zuen segidan, eta horrek UPN eta PSOEko zinegotzien haserre sortu zuen. Gaitzetsi eta udalbatzatik atera ziren.

Marasmus Femeninus' Patziku Perurenaren saiakera argitaratu berri du Elkar argitaletxeak. 'Apo ttipiaren...' liburuaren filosofiari jarraiki, egungo gizartean ugari diren uste eta aurritizien kritika egiten du goizuettarrak, emakumeen ikuspuntutik. Askorendako mailu eta labana izango den liburuaren kariaz berarekin mintzatu ginen bere etxean.

Gogo kritikoa

ALBERTO BARANDIARAN / LEITZA

Gorrotza zein pasioa sortzeko kapaz da, ustez 'ukiezinak' diren gai eta pertsonen astinaldi ederrak emateko gai. Inork kritikatu ez duenaren kontra sekulakoak eta bi botatzeko gauza. *Enfant terrible*, baina, batez ere, topikoen eta usteen kontrako mailua, edertasunez apainduriko mailu gupidagabea. Gero eta leitzarrago —nahiz eta bertan 'Goizuetakoa' izan—, apo ttipia harripilaren azpian bezala, euskal literaturako pertsonalitaterik interesgarrienetakoa dugu Patziku Perurena, eta bere azken liburua —'Marasmus Femeninus'—, inoiz ez bezala, labana zorrotza izango da askorendako, mailua gogoan.

Gaztain erreak eta sagardoa mahaian, hotza Leitza, eta beroa Patzikuren solasaldian. Esaten duenarekin zeharo sinetsita dagoela antzematen zaio, eta, bere izkribuetan bezalaxe, egia botatzaren ditu itsumustuan. Bere egia. Soilik une batez asaldatzen da pittin bat, kritikatu kritikazeagatik egiten ote duen galdetzen diogunean: «ez da kontra egiteagatik, mundu ikuskera bat da».

EGUNKARIA.— Eta kezkatzen zaitu jendearen iritziak?

PATZIKU PERURENA.— Ez, baina ez. Gauza guztietan gertatzen den bezala, beldurra dut jendeak hartuko dituela lau puntu txarrenak, eta horrekin galdituko dela. Eta iritziak iritziak dira, baina horretaz aparte hor, dago literatura. Nik atara ditudan liburu guztietan literaturarik gehiena honetan dago. Hori nahikoa dut, eta ez dut gehiago behar. Orain, hasten badira esaka... ba, sanbenito hori ere lehenagotik nuen lepotik. Ez nau kezkatzen batere.

EGUNKARIA.— Baina zuk ere zirikatzan duzu, jokatu egiten duzu sanbenito horrekin...

PERURENA.— Askok esan didate hori... baina bakoitza da den bezala. Hori bai, zerorek sinesten ez duzun edo bizi ez duzun gauza bat idaztea, hipokritoki egin behar baldin baduzu beti, hori izango litzateke tortura bat, eta nik idazten dudanean, beti nire barrerean zer bait sortzen delako da. Ez da kontra egiteagatik, mundu ikuskera bat da.

EGUNKARIA.— Jendeak esan ohi du «Patziku ez da idazten duen pertsona bera, bestelakoa da...».

PERURENA.— Nik uste dut ez dudala mundu bat erreala eta beste bat idaztea, hipokritoki egin behar baldin baduzu beti, hori izango litzateke tortura bat, eta nik idazten dudanean, beti nire barrerean zer bait sortzen delako da. Ez da kontra egiteagatik, mundu ikuskera bat da.

tza erreala sekulako atsegina da. Hori lotuta dago, eta garbi daukat.

EGUNKARIA.— Errebindikazioa egiten duzu askotan ohiturekin eta tradizioarekin, mundu honek akatu dituen gauza guzti horiekin. Horrelako gizarte batean hori aldarrikatzea ez al da anakroniko samarra?

PERURENA.— Orain egiten ditudan artikuluegatik askok esan didate apezak bezala idazten dudala, eta ohartu naiz neronei jende zaharrari, nazionalistei eta, gustatu egin zaizkiela. Baina gauza bat esango dizut: ni klasikozele izanagatik, ez naiz duela 50 urte Euskal Herrian zegoen ikuskera horren aldekoa ere; hau da, denak onak, santuak, tradizioak. Nik ez diot inori esanen: «bueno, zuk ez

Gizartean jeneralean ikusten ditudan baloreak ez ditut konpartitzen. % 80 ez dut konpartitzen».

zazu pentsatu hau nitaz». Oso librea da nazionalista zahar bat pentsatzeko «hau gurekin dago», baina seguru nago egunero berarekin biziko banintz, bi eskuak burua eraman eta alde egingo lukeela. Nik modernismoa ukatzen dudanean, ez dut esan nahi lehengo gizarte klasiko puritano berdintzaile hori ona denik. Orduan bizi izan banintz seguru nago nere izpiritua berdintzu izango zela: kritikatu egingo nuke. Eta orain kritikatzan ditut orduko gauza asko.

EGUNKARIA.— Eta zer da klasiko izatea?

PERURENA.— Nik klasiko hitza onartzen dut. Lehengo autoreak irakurtzen dituzu eta 'noble' hitza mila aldiz erabiltzen da. Esate baterako, Euskal Herriari buruz nazionalismoak sortu duen irudia: euskaldunak hobereak gara, eta ez dakit zer... Euskal Herrian izan dira putasemeak, krimenak, eta denetarik, eta hori ukatzeak ostia txarrean jartzen nau. Alderdi ona bakarrik erakusten du, eta txarra ezkutatu. Bakoitza den bezala azaldu behar da, zinezko bizimodua behar da. Niri bere biziaren egiten dakien pertsona gustatzen zait. Eta gaur egungo mundu modemoak erakusten duen gauze-tako bat da norberak bere gauza egiten ja ez dakielako. Mundu guztiak ikusi nahi du bere burua is-


piluan, eta hor daude komunikabideak, gizartea komunikabideetatik bizi baita. Eta komunikabideak lehenbiziko bertsioa kendu eta bigarren bat, ofiziala, ezarri egiten du. Beste bigarren bertsioaren inguruan dabil jende guztia. Hori ukatu eta bere bertsioari segitzen diotak ez du existitzen... Gezur hutsa! Deus estimatzen baldin badut hori da, jendeak bere bizi-tza egitea.

EGUNKARIA.— Apo ttipia zapaldua bukatzen zen. Zure ikuspegi horrek ezkertasunera darama?

PERURENA.— Ni ez naiz pesimista, behintzat ez dut nere burua horrela ikusten. Justo aldrebes: bitalista naiz. Baina nik nere burua ikusten dudana bezala hik ezin duk ikusi. Eta deus ikusten baldin badut gaur egungo gizartearen errebindikazioan lehen esan dudana da: negar faltua. Bakoitzak bere bizimodua egiten ez daki, negarra bakarrik egiten daki. Nik eskatzen dut negar gutxiago eta gozotasun pixka bat, norberaren larruan gustura bizi-tzen saiatzea. Lehenbiziko eskuko bertsio hori ahal den gehien lantzen saiatzea, bere bizimodua bigarren ispilu batean ikusten ibili behar izan gabe.

EGUNKARIA.— Ez zaizu gustatzen mundu honek daraman mar-txa.

PERURENA.— Gizartean jeneralean ikusten ditudan baloreak ez ditut konpartitzen. Ehuneko 80 ez dut konpartitzen. Ikusizuna, esate baterako. Bertsolari Txapelketa hasi zen Leitza. Egun berean Nekazari Eguna egin zuten hemen —eta horretxek eragotzen du dena dela ikusizuna hutsa, inor ez dela bere larruan bizitzen; feministen eguna, euskararen eguna, eguna...— eta bertako bi bertsolari omenaldia egin zieten. Jendea oso gustura egon zen, eta asko gelditu ziren txapelketara joan gabe bi bertsolari zahar horiei aditzeko. Hura ez da inon existitu, komunikabideetan. Txapelketari buruz mila aldiz hitz egingo dute, baina bere giroan eta naturaltasunez sortu denaren berri ez du inork ematen. Ez zaie batere inporta hori, baina bizi egin duen jendeak bertatik bertara bizi du. Hark du balore guztia neretzako. Ete adibide hori zabaldu daiteke gauza guztietara. Nere ikuspegia oso globala da, eta jende askok esaten dit «hik astakeriak esaten dituk, kontradikzioak...», ba kontradikzioak mundu guztian daude, baina hasi euskaratik, nere bizi-tzeko modutik, nere mundu ikuskeratik... badago koherentzia bat, hitzetara



Idazle goizuettarra, elkar-
rrizketaren hiru unetan.
JOXE LACALLE

ez dagoela jenderik horretarako, edo beldurra dagoela honekin sartzeko, kritika sortzeko?

PERURENA.— Hori bizi egin behar da, eta nik uste dut ez dela mundua horrela ikusten duen lagunik. Badakit erudizio aldetik hik edo beste horrek edo edonork izan dezakeela nik baino gehiago, baina kontua ez da filosofo guztiak leitu izatea eta ez dakit zertan ibilia izatea. Horren atzetik bada-
go sentimentuzko armonia bat, intuizio bat, eta hori oso gutxi ikusten dut. Izugarri maite duen literato bat badut, eta herorrek ezagutzen duk, eta nik horrekin izan dut harreman berezia... Hori ezagutu baino lehen-txeago Nietzsche eza-gutu nuen, eta horrek buelta oso bat eman zion nere munduaren ikuske-rari. Eta euskal

literaturan, edo saiakeran, sekulan sortu ez den fenomeno bat Gil Berarena da. Hor dago Joxe Azurmendi, baina badakizu seminarioan ari-tua dela, eta gero esango dute apaizekin sartzen naizela, baina euskalgintzan, oro har hartuz, ikusten dut moralismo oso itxia. Seminarioetatik ateratako jende asko, eta ari dira «hau ez dut jarri beharko, hau bai...».

EGUNKARIA.— Baina hori ez da bakarrik gurean gertatzen...

PERURENA.— Nik hau bizi dut, baina uste dut baietz, toki guztietan gertatzen dela. Liberalismo sana ez dugu izandu mundu honetan.

EGUNKARIA.— Eta sortzen de-nean, jendea asaldatu egiten da...

PERURENA.— Hori da. Lehengo egunean irakurri nion Saizarbitoriori historia eskolara eraman behar zela. Erabat conforme, baina historia ez dago egunik. Herri honi eman zaion historiak bi salto izan ditu garbi. Crom-lech-ak, harriak, antropologia, eta hortik hurrengo pausoa nazionalismoa da. Bitartean dago hutsa, eta uste dugu santuak eta izan gara, baina horretan izan diren desastreak, giroak, ezagutu behar ditugu, ni hemen nagoela baina nire arterainokoak nola-koak izan diren jakiteko. Hori ezkutatu egin da, eta berresku-ratzeko ez dugu ezer egin. Jende guztiak —nere inguruko jendea, jende arrunta— pentsatzen du euskaldunak garaia ikaraga-riak, eta nik ez diot esaten jen-deari hori leitu behar duenik, baina eskola edo unibertsitatean egon den jendeak ere ez du hori ezagutzen.

EGUNKARIA.— Galdutako den-bora hori berreskuratzea badago? Denbora gure kontra baitoa. Gero eta gehiago zabaltzen ari da Euro-pa eta mundua ere herri handi bat dela, eta denek parekatu behar dugula...

PERURENA.— Denbora ez doa gure kontra. Niri berdin zait ber-reskuratzen badugu bi urte barru



edo ehun urte barru. Arazoa da konplexu ikaragarria badela he-men. Baina, zergatik da konplexu hori? Justu ez delako ezagutzen gure historia. Gure historia historia unibertsalaren barrenean kokatuko bagenu, senti-tuko gi-nateke edozein bezala, baina uste dugu harrespilak, ardiak eta bes-terik ez dugula izan. Eta igoal izan dugu edozeinek baino his-toria aberatsagoa, gizatasun eta humanismo aldetik begiratuta,

eta oso anitza, ez orain jartzen diguten bezain puritanoa.

EGUNKARIA.— Konplexu han-dia daukagula uste duzu, adibi-dez euskararekin?

PERURENA.— Bai, konplexu handia eta gainera gezurtia. Guk gure historia egin dugu, eta Ita-lian nobela ikaragarria atara dela, eta euskarak hori faltan duela esanez aritzea... Zuk hori adierazi

nahi duzu? Nobela hartan leitu duzun munduak motibatzen al zaitu, benetan esan nahi duzu? Benetan esan nahi baduzu, esan-go duzu, eta bestela ez duzu esan beharrik. Helburu antzu hori jar-litza, hizkuntza zure barren-go motibazioaren gainetik jartzea txor-rada ikaragarria da.

'Marasmus Femeninus'

A. B. / LEITZA

'Marasmus Femeninus', idaz-le goizuettarren azken saiakera, gaurko gizartearen ikuskera kri-tikoa da, eta emakumearen pape-rari erreparatzen dio bereziki. Saiakera gutunien bidez dago an-tolatuta, eta bertan Nafarroako herrixka batean gelditu den nes-kak Madrilén bizi den betiko la-gunminari hainbat gairi buruz ematen dio bere iritzia. Joaqui-nak, eskutitz horien bidez, astin-du egiten du gaur egungo hainbat uste eta aurritiz, eta beti ere, emakumearen ikuspuntutik.

Lau bat urte izan du gordeta Patzikuk saiakera hau, bururatu eta burutuz geroztik arazo franko izan baitu bidean. Argitaletxeak saiakera hasieran gogo onez har-tu bazuen ere, gero hostu egin ziren animoak, eta tartean libu-ruari kritika gogor eta zuzenek atzeratu zuten argitalpena. Berak azaldu duenez, demokrazia ingu-ruko negar faltua eta demokra-


ziaren beraren porrota feminis-moarekin lotzeko ahalegin bat da. «Garai hartan erribindikazio sozialetan nenbilen sartua, eta ohartu nintzen guzti horretan ba-tzegoela halako negar faltu bat, eta demokraziaren inguruan Frantziako Iraultzarekin gertatu zen gauza bera zegoela: garai ho-rietan sortzen den giro sozialak porrot egiten duela». Feminis-moa horrekin lotzeko aro berri-eta zaharren arteko garaietan emakumeek izan duten papera aztertzen du Patzikuk. Horrela jasotzen du liburuaren pasarte batean, Joaquinaren hitzetan.

«Edozein antropologo txorok badakien gauza dun, gizarte sis-tema batek hondoa joxea due-nean, emakumea gailentzen dela beti agonian den sistema horren alde; eta alderantziz, sistema za-harkitu hori ahuldu ahalean na-rusi kritikak gogor eta zuzenek atzeratu zuten argitalpena. Berak azaldu duenez, demokrazia ingu-ruko negar faltua eta demokra-

ondarretan zebilela, emakumeak ageriko ditun nagusi (...) Eta oraingo emakoikeri kontu hau ere eskema berberetan sartzen dun. Jadanik gizona nazkatu-rik daukan demokrazi edo xoxialix-mo xixtema zaharkitu honen az-kenetan, emakumea agertu dun berriro, ustez beretzako gizarte eredu berri eta egoki baten bila, baina ez, funtsean denok asper-turik gauzkan demokrazi zahar-kitu honi eutsi besterik ez zion egin nahi emakoikeriari».

Aurreko parrafoan laburbil-tzen da liburu osoan ageri den fi-losofia: emakumeak gizona as-pertuta daukan sistema baten al-de egin du apustua, bidean gauza garrantzitsuak galtzeko arris-kuarekin. Liburua, ohi bezala, zuzena eta batzuetan gordina egin du goizuettarrak, alde guztie-ti tiroka ari baita. Horregatik bel-dur da jendea azalean geldituko ote den, muinera joan gabe. Eta muinean dago interesgarriena.

Gazteendako Zokoa



Nafarroako Taldekako Xake Txapelketaren seigarren ihardunaldiko partida. 1993ko azaroaren 20an jokatu.

Antonio Lisarri, 1.940 ELOkoa (Casco Antiguo)-Angel Pardo, 2.230 ELOkoa (Oberena 'A').

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4, Zf6; 5.Zc3,d6; 6.Ae2, g6; 7.0-0,Ag7; 8.Ae3,0-0; 9.f4,e6; 10.De1,a6; 11.Gd1, Dc7; 12.Dg3, b5; 13.a3,Ab7; 14.f5. Zein asmo dute txuriek? Peoi bat gal dezakete, baina agian alfila inguratzeko ezkutuko asmoa dago. Ziur aski, hori izan zen ideia. 14...Zd4; 15.Ad4,e5; 16.Ae3, Ze4; 17.Ze4, Ae4; 18.f6,Ah8; 19.c3,fG-e8; 20.Dh4,d5; 21.g4,aG-d8; 22.g5, Dc6; 23.Af3, Af3; 24.Gf3,h5. Ez zuen 'd4' jokaldiak baliorik, 'Gh3' erantzunagatik.

25.Af2. Pasoan jatea ez zen ona. 'Eh7' nahikoa zuten arriskua uxatu, eta alfila askapen bidean jartzeko. 25...e4; 26.Gg3,Dc4; 27.Ge3,a5; 28.Gd4, Dc6; 29.Df4, Ge6; 30.Ag3, Gc8; 31.Df1,Af6. Beharrezkoa zen. Geroko peoien mugimendua erabakiorra izan daiteke. 32.f6,Gf6; 33.Dd1,Gf5; 34.Ge2, Gg5; 35.Dd2,f6; 36.Eh1, Eg7; 37.Gc2,De6; 38.Ah4. Partida hondamendira eramane zuen hutsak. Ikus koadroa.

38...e3; 39.Ge2,Df5. Matea geraezina da. Txurien okerrak amaiera interesgarria moztu

Grunge musika: Seattleko soinu

XABI DE MIGUEL

Seattle, Washingtoneko eremuan kokatua, EEBBko Iparmendebaldeko kostaldean, milioi erdia biztanle, Canadarekiko mugan, euritsua eta industrial, munduko rock-and-rollaren zilbor bilakatu da, Grungearen seaska, *heavy*, 70ko hamarkadaren rock-and-rolla, garagea, post-punk eta *new wahren* arteko nahaste berraste bat; primitiboa, alaia, akustikoa eta une berean oldarkorra.

Bruce Pavitek Sub-Pop sortu zuen 1979an, Olympian (Washington), fanzine bat bezala. Musikazale izugarria zelarik, gehien inportatzen zitzaiona musika erregionalaren garapena zen. Fanzinea bost urtez landu ondoren, Seattlera mugitu zen. Bere lankideak eta berak gogor lan egin zuten 1988an Sub-Pop disketxean, justu Seattle bere soinu propioa lantzen ari zen unean. Seattleko

ingurunea eta bere musikaren ateko harremana argia da: geografikoki guztiz aislatuak daude, komunikabide garrantzitsuenetatik urrun, eta horrek lagundu zuen berezko soinu horren bilakaeran.

Sub-Pop bakarra da disketxe moduan; musika erregionalaren garapena azpimarratzen dute, eta ez dute soilik musikariak laguntzen, baizik eta produktoreak, argazkilariak eta diseinatzaileak ere, eta guztiak batu ondoren, denak batera Grungea aurrera eramatea lortu zuten.

Grungea ez zen asmatu, ez zen laborategi batean sortua izan; ez zen marketing proiektu bat bezala sortu. 'Grunge' hitza erabiltzen den bezala, beste hitz batzuk ere erabiliak izan daitezke, hala nola Sludge (lokatza), edota Grimey (koipe-tsua). Hau da, soinu zikina eta konpondu gabea definitzen deun edozein hitz. Soinu mota

hau betidanik egon da nolabait, ez da orain sortua, egin dena hastapenetara bueltatzea izan da.

EEBBko disketxe garrantzitsuenek porrot egiteko arrazoi bat diru gehiegi erabiltzen dutela da. Bideoklip bat egitean, taldearen arima diru gutxiarekin har daiteke. Sub-Popek bideo bat egiteko 500.000 pezeta baino gutxiago erabiltzen ditu, disketxe garrantzitsu batek bost eta 50 milioi artean erabiltzen dituen bitartean.

Sub-Popeko talde ugari orain disketxe handien ilaratan daude. Aldaketa egin zuen lehena Soundgarden izan zen, nahiz eta ospera jauzia ematen lehena Nirvana izan, 1991ean. 'Talentu ehiztariak' zelatan daude, eta Hollywoodeko ez du fenomeno hau baztertu, Orain dela gutxi 'Singles' filmea estrenatu egin da, Seattleko gazteengan eta bere inguruan oinarrituta.



Bortuak 2

Bortuak, hauxe dugu euskaraz Pirinioak esateko erarik jatorrena. Baina nahiz eta aspaldidanik ezaguna izan ez da maiz literatura eta kartografiara eramane. Agi denez, arruntzia omen da funtzio kulto bat betetzeko, hiztegiko hitz arrunt bat. Horregatik, agian, *Auñamendi* bultzatzeko arrazoia.

Baina izena zaharra da oso, baita euskal letretan ere. Oihenartek (1592-1675) Zuberoako atsotitz franko bildu zituen. Horietako bat, 372.a hain zuzen, honako hau zen: «Orhiko xoria Orhin laketa». Ondoren honelaxe zioen: «Orhi da Bortuetan mendi gora bat, Nafarroako elgatako eta Zuberoako mugan». Erizpide oneko mauletarrak jendearen artean aditzen zen izena idatziz.

Sallaberry mauletarraren *Uskal Herri Maitiari* kantutegian *bortua* zenbait kantatn antzematen dugu *Bortian Ahizki* eta *Belhaudiko Bortian* 'sur la montagne' itzulita bietan.

Azkuek guzti horren berri izan zuen. Ireki dezagun hiztegia, 'bortu': 1 *desierto* 2 *BN R S Pirineo lat. portus = Se usa en plural*. 'Portu' 2 *AN BN Pirineo, Puerto de los Montes*. Pierre Lhanderen hiztegiaren: 'Bortu' (eta mortu eta portu aldaikiak) 2º *Pyrénées* [du latin Portus] V. *ahñemendi*. Eta gaur egun bizirik dago, zubereraz behintzat. Lehengo egunean ETBko Euskal Herrikit saioan 'Bortuko Üngürü' izenekoa eman zuten eta horrela hasten zen: «Santa Garaziko komuna haran batean zehar hedatzen da Zuberoako hegomendebaldean nahiz eta bertako bizilagunek Bortuko üngürü deitzea nahiago izan». Programa berean J. Casenavek «Bortu hoik gora baitira» eta «Erronkariko eta Santa Graziko bizizaleak bildu zituzun bortu horietan».

Haratago joanez, ikusiko dugu izen berau erabiltzen dela beste eskualdetan ere (Erriberan eta Aragoian, baita Kantabria aldean ere). Irribarrenen Vocabulario Navarrok hau irakurtzen dugu: 'Puerto' *Mendialdeko hegoaldeko haranetan eta Erriberan Pirinioari El Puerto deitzen diote, era berean Zaraitzu eta Erronkaribarri. Zaraitzun eta Erronkaribarren el Puerto esaten diete Balleko mendi komunalei...* Eranskin batean 'Los Puertos' *Los Pirineos Navarros*. Aragoian ere usu aditzen da. *Subir al puerto* (*Candanchú aldera joateko Sigüesense aditua*), 'Aire de puerto, als tres dias muerto' *Benasqueko hizkeran...* Antzeko, zerbait Kantabriako *Liebanan* ere *subir al puerto* Picos de Europa esan beharrean.

Bortuak, beraz, bikote ederra Pirinioekin batera. Ia hemendik aurrera gehiago aditu eta irakurtzen dugun baztertutako izen herriar hau. Elurrarekin batera izen hau erabiltzeko aukera izanen da.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak


Ur uher gaineko zubia

Argazki dendara sartu eta horra hor haren gaztaroko neska lirain non ikusten duen, zilarrezko portarretratos batean, lodikote batekin ezkontzen den egunean. Haren begirada xarmanza ez du galdu, denbora gorabehera. Denderoak jakinnahiz galdeztzen dio ea ezagutzen duen neska hori, eta gure gizonak tutik ere esan gabe, bere argazkiak jaso eta bakartasunaren erreportaia barneko poltsikoan gordetzen du, ez bait du merezi buruan gordetzeak poltsikoan gorde daitekeena.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.- Harriak jaurtikitzeko arma. 2.- Litioa. Gizonezko batentzat senide emea. 3.- Jausi. Aluminioa. 4.- Ospa! Urtaro bat. 5.- Bat eta bat. Amuaren erduan. 6.- Toka eta gipuzkoan, zuen. Metal mota. 7.- Iridioa. Aintza. 8.- Lurraldeak. Interjekzioa. 9.- Auziak.

GOITI-KA-HEHERA: 1.- Bizkaiko ibaia. Zilbor. 2.- Hiri nagusia. 3.- Lehenengoa. Gipuzkoako ibaia. Kontsonante bikoitza. 4.- Hegoaldean, gara. Zein lekutara. 5.- Ihardun. Mendebalean, haiz. 6.- Asiako estatua. Bazter. 7.- Egile atzizkia. Emirerriko buruzagia. Bokala. 8.- Egokierak. 9.- Sexu eme. Portu.

Bizi Bizian

Nafarroako Kontu Ganbarak irregulartasunak aurkitu ditu Ehiza Federazioaren jardueran, eta horrek polemika piztu du berriro ere federazioa eta Ignacio Aiestaran bere

presidentearen inguruan. Hauek gobernuaren aldetik «jazarpena» jasaten ari direla diote, eta gasetatu ez duten dirua ez dutela itzuliko iragarri dute federazioko kideek.

Ehiza Federazioa, ikusmiran

A. B. / IRUÑEA

Kontu Ganbarak egin duen azterketak berriro zuzendu ditu begi guztiak Ehiza Federazioa eta Ignacio Aiestaran bere presidentearengana. Lehendabiziz sozialisten gobernuarekin eta orain UPNkoarekin, iskanbilen sorburua eta esamesa askoren sortzailea izan da Aiestaran, bai ekologistekin izandako gora-beheren ondorioz, bai kontrapasaren inguruko dekretuaren eztabaidarekin, edo federazioan izandako irregulartasunak direla medio. Azkenetakoa izan zen Aiestaranen soldataren inguruan izan zen polemika, eta federazioaren barnean bere kontrako hautagaiak sortu baziren ere, azkenean dena agotz galdan gelditu zen.

Hori justifikatzeko federaziotik erabili den argudioa «kanpoko presioak» izan dira, eta orain ez da aldatetik izan. Argi dago Aiestaran jauna ez dela gobernu-kideen gustukoa. Kritikoa administrazioarekiko, kontrapasaren inguruan iaz antolatu zituen manifestaldiak aspaldiko handienak izan ziren ehiztarien artean, eta min egin zion Gobernuari. Halaber, alderdi politiko berria —'Ehiza, Arrantza eta Tradizioak' antzeko izenarekin— sortzeko erakutsi duen asmoa ez du begi onez ikusten gobernuak, boto emaile gehienak UPNkoak



Ehiztarien eta gobernuaren arteko harremanak ez dira onak egun.

izango baitziren.

Baina Kontu Ganbarak egin dako azterketan garbi azaltzen dira gastuak eta dirulaguntzen gestioan izaniko irregulartasunak. 1991n Hezkuntza, Kirola eta Kultura Departamentuarekin sinatutako hitzarmenak zenbait helburu ezarri zituen Federazioarendako: 52 ehiza eremutan

Ehiza Antolamendu Egitasmo burutzea, eta beste 56ren errebisioa, besteak beste. Horretarako 50 milioi pezetako aurrekontua eman zuen departamentuak, baina Kontu Ganbarak egindako azterketaren arabera, 28 eta 38 milioi bitarteko gastuak baino ez dira egin. Hala ere, hitzarmenak ez zuen zehazten

dirulaguntzak itzultzeko garrantiarik, hitzarmena bete ezik, eta, halaber, ez zen aipatzen gertatzen zen dirua itzuli beharra, soberanterik izanez gero. Bestalde, Kontu Ganbarak bere jarduerara aurrera ateratzeko Federazioaren aldetik izaniko oztipoak nabarmentzen ditu bere azterketan, eta Nafarroako Go-

bernuak ezarritako kontrola nahikoa ez dela izan azaldu, «kontuan hartuz dirulaguntzen kopurua».

1992ko hitzarmena, bestalde, Federazioak bete egin duela dio Kontu Ganbarak. Halaber, hitzarmenaren erredakzioa osatuagoa eta egokiagoa dela dio, baina aurretik izaniko akats berberak dirautela aipatzen du, ez baita garrantiarik jartzen dirulaguntzen itzuleraz.

Federazioaren erreakzioa ez da berandutu eta bere zuzendaria azaldu zuenez, bertako gobernuak bideratutako «jazarpena» besterik ez zen. Halaber, Kontu Ganbarak inoiz baino presio gehiago jaso zituela azaldu zuen Aiestaranek, eta horren arrazoia ehiztariak sortu nahi duten alderdian dagoela azaldu zuen. «3.000 botoengatik erabaki zen gobernu, eta guk baditugu boto horiek lortzerik. Orduko ehiztari askok botoa eman zion UPNri, baina gobernuak ekologistek utzi die ehizaren kudeaketaren ardura gutzia».

Dirulaguntzen sobrantea ez duela itzuliko azaldu du Federazioak, hitzarmenak ez baitu horrelakorik aurrakusten. Federazioak azpimarratu zuen hitzarmena bete, bete egin zela, nahiz eta horretarako emanda zegoen diru gutxiago erabili.

Aiestaranen kudeaketa zalantzan

TXARO SATRUSTEGI / IRUÑEA

Ignacio Aiestaran Ehiza Federazioko presidentea ez da batere pozik azaldu Kontu Ganbarak egin duen txostenarekin, noski. Berak dioenez, guzti hau Nafarroako Gobernuak bideratu du, «ehiztarien kontra dabilako», alderdi politiko berria sortzeko hauek duten asmoa dela eta. Aiestaranen ustetan, hiru mila boto lortuko luke alderdi honek, UPNri kendutakoak gehienak, «gobernuaren gestioa ehiza arloan oso txarra izan baita».

Gauzak, ordea, ez daude batere garbi Federazioan. Arazo nagusia, inguruko askorentzat, presidentearen kudeaketa txarra da, eta hortik datoz gora-behera ekonomiko guztiak. Kontu Ganbarak dioenez, Nafarroako Gobernuak emandako diru guztia ez zen erabili iragarritako lanak ordaintzeko; zertan erabili dute, orduan, diru hori? Ikerketa sakonagoa eginez

gero, irregulartasun ugari aterako liriteke, *vox populi* baita, federazioaren barruan ere, egindako gestio okerra.

Are gehiago, aurtun Federazioak ez du dirulaguntzarik jasoko, aurkeztu beharreko dokumentazioa ez baitzuen bidali.

Aurtun Federazioak ez du dirulaguntzarik jasoko, aurkeztu beharreko dokumentazioa ez baitzuen garaiz bidali.

Egoera ekonomikoa larria da, eta bertako langile gehienek alde egin dute. Egundak Federazioaren kontraturik, nahiz eta beren kabuz lanen bat egin.

Aiestaranek berak aipatzen du Nafarroako Gobernuarekin di-

tuzten tirabirak, sortu nahi duen alderdi politiko berriak izango duen eraginak sortuak direla. Baina, berak aipatzen dituen hiru mila botoak ez dira oso fidagarriak, inolako ikerketa edo inkestarik egin gabe eman direlako datu horiek. Era berean, UPN gobernuan dagoenetik, ehizaren gestioa ekologisten eskuetan dagoela dio Aiestaranek, eta laguntza guztiak kendu dizkiotela. Ekologistek ez dute berdin pentsatzen. Kontua da gero eta ehiza-eremu gehiago dagoela gobernu Ingurugiro Saileko kudeaketapean, ez Federazioaren eskuetan, eta dirulaguntzak ere murriztuko direla. Egundak, ikerketa, egitasmoa eta plangintza gehienak ekologistek egiten dituzte federazioa, ehiztari eta ehiza-eremutako batzordeak kontuan hartu gabe, eta horrek, jakina, haserre sortu du federazioan eta ehiztariengan. Baina, jakina da, gauza guztiak erlatiboak dira, eta bakoitzak berea defenditzen du.



Ignacio Aiestaran.

JOXE LACALLE

Mikel Urmeneta

.....komikigilea

«Iskanbiblez kopetaraino nago»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Iskanbila sortzailatzat al daukazu zeure burua?

MIKEL URMENETA.— Iruñea bezalako hiri batean, herri atzerakoi eta eskuindar honetan, jendearen ohitura zaharretatik landa dagoen edozein ekimen da iskanbilatsua. Sexua, eliza edo antzeko edozein gaia jorratzeak iskanbila pizten du. Inkonszienteki izan bada ere, nire obrei kutsu iskanbilatsua eman diet beti, edonori bere lana mintzagai izatea gusztatzen zaiolako. Dena den, ez zen nire asmoa kutsu horren bitartez sortu ditudan mugidak sortzea, iskanbila horiek sekulako publizitatea eman badidate ere.

EGUNKARIA.— Iskanbilak inkonszienteki sortu dituzula diozu. Zein heinean?

URMENETA.— Lehen tirabira Sanferminetako kartelaren inguruan sortu zen. Nik, Ameriketara eta beste hainbat lekutan egiten den bezala, telefono zenbakia sartu nahi nuen kartelaren izkinan. Berez, txorakeri bat zen, eta Hiritar Eragintza Sailekoek horretarako baimena eman zidaten. Baina alkateari ez zitzaion ideia gustatu, eta sekulako iskanbila sortu zen. Horren ondorioz, hiru egun eman nituen egunkarietako horrialdeetan.

Printzipioz inolako intentziorik gabeko ekintza —nire izaera medio, eta iskanbilak publizitatea sortzeko zuen ahalmena ikusirik— pixkanaka-pixkanaka ekintza konsziente bilakatu zen. Halaber iskanbila guzti horretaz kopetaraino amaitu dudala esan beharra dago. Azken bolada honetan zenbait arazo izan ditut, baina nahiago izan dut afer horiek ez karrikartzeari. Finean, beti iskanbiletan ibiltzeak ez dizu inolako mesederik egiten.

EGUNKARIA.— Maribel Beria-

nekin harreman gora-beheratsua izan duzu. Iskanbila anitzetan zure antagonista izan da. Zer deritzozu?

URMENETA.— Andre honek barrugure handia ematen dit; izan ere, sekulako publizitatea egin dit, eta hari esker hamaika lan enkargatu dizkirate. Beraz, ez diot inolako gorrotorik batzuek kontrakoa uste badute ere. Hori bai, nire irudikoz kulturarik gabeko emakumea da, ez dauka bere postuak eskatzen duen presuntzia, kulturaren onerako ez du ezer egin, eta zerbait egiten duen bakoitzean hanka hankaraino sartzen du.

EGUNKARIA.— Bistan denez, Iruñeko Udalaren kultura politika ez da zure gustukoa.

URMENETA.— Are gehiago, negargarria iruditzen zait. Ez dute iruindar arruntengan inolako kultura kontzientziarik sortzen, eta aldi berean makina bat lehiaketa antolatzen dute, guztiak oso gaizki bideratutakoak. Lehiaketa horiek sari banaketa, hamaiketako eta antzeko jaitxoaren bitartez euren buruaren promozioa egiteko besterik ez dituzte erabiltzen. Saritua zarenean —eta bestela ere— haientzat hutsaren parekoa zara. Bestalde, sosak ospetsuak izandako eta jadanik lur jota dauden artisten eta talderen emanaldiak antolatzen gusztatzen dituzte, hemengo talde hasberriei laguntza eman beharrean.

EGUNKARIA.— 1989ko Sanferminetako kartelan estilo pertsonal eta berezia erabili zenuen, eta horrekin aurrera segitzen duzu. Noiz ailegatuko da aldatetaren ordua?

URMENETA.— Estilo horretaz kopetaraino nago, egia esateko. Inoiz ez naiz gauza bakarrean aritu, eta aldatzea gusztatzen zait. Sanferminetako lehiaketa irabazi nuelarik, estilo horrek prime-

Duela lau urte, 1989an, Mikel Urmenetaren urtea izan zen. Lau lehiaketetan parte hartu zuen, eta lauretan garaile atera zen, horien artean Sanferminak iragar-

tzeko kartel lehiaketan. Orduan artista izatea erabaki zuen, eta orduantxe lehen tirabirak izan zituen udaleko ordezkariekin. Harrezkero, tirabira horiek jorratu dute bere artista bidea.



JOXE LACALLE

Herri atzerakoi eta eskuindar honetan jendearen ohitura zaharretatik landa dagoen edozein ekimen iskanbilatsua da».

tzen diren lez —guk marrazkia sinatu nahi izan genuen, jendeak Kukuxumusu horretan sarturik zegoela jakin zezan.

EGUNKARIA.— Kukuxumusu aipatu duzu. Elastikoen negozioak, printzipioz behintzat, ez dirudi emankorregia. Ostera, sekulako arrakasta lortu duzue horren bitartez. Nola?

URMENETA.— 1989ko Sanferminen atarian hiru lagun elkartu ginen, eta kamisetak egiteari ekin genion. Atzerrian elastiko politak ikusirik genituen, eta hemen ere antzeko zerbait egitea erabaki genuen. Sanferminetako elastiko asko saldu genituen, eta istorioarekin aurrera jarraitzea erabaki genuen. Iruñeko Souvenir dendetan gure kamisetak banatzen hasi ginen. Gero Donostian hasi ginen, eta Miarrizten geroago... Eta leku guztietan sekulako arrakasta lortu genuen.

Egun, batetik, estatu osoan Souvenir elastikoak banatzen ditugu, eta bestetik, Euskal Herrian, hori egiteaz gain, zenbait gai kultural eta etnikoen inguruan ere elastikoak egiten ditugu. Lehen bide horretan sekulako arrakasta lortu dugu, eta aurren, esate baterako, Parisen eta Lisboan elastikoak saltzen hasiko gara. Beste bideari dagokionez, hori da gehien gusztatzen zaiguna, dirua ateratzen ez badugu ere. hor daude intsumisioa, Everest eta antzekoak. Horrelako kontuetan laguntzen saiatzen gara.

ran funtzionatzen zuela ikusirik eta horri eustea erabaki nuen. Batetik, kopetaraino nago, eta bestelako estiloak lantzeko irrikitan. Hiru urte barru estilo hau jada agortua egon liteke, eta orduan aldatzeko prest egon beharko dut.

EGUNKARIA.— Batek baino gehiagok zure lan guztietan propaganda sartzeko duzun ohitura kritikatzeko du. Hemen daukazu horiei erantzuteko parada.

URMENETA.— Niri gauza guztiak sinatzea egokia eta zilegia iruditzen zait. Agian Kukuxumusen izena leku guztietan ikusteak nekatzten du, eta hori ere ulertzen dut. Nafarroa Oinezen, esaterako, guk txoritxo eta propaganda lana musutruk egin genuen, nahi izan genuelako, eta gusztatzen zitzagulako. Horren truke —EGUNKARIA eta beste zenbait komunikabide euren laguntzaren truke kartelan ager-

NOISKIJATOR

© Zaldi Erroak

